

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko apirilaren 10ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

AMHER-SOS ARRAZAKERIAREN 2024KO HITZARMENAREN JUSTIFIKAZIOA ETA 2025EKO DIRULAGUNTZA ONARTZEA.

Hernaniko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko otsailaren 3an egindako bilkuran, **AMHER-SOS Arrazakeria** elkarte eta Udalaren arteko ordura arteko hitzarmena berritzea erabaki zuen, 2022-2025 epealdirako.

Aipatu hitzarmenaren xedea zera da: kulturartekotasuna eta jatorri ezberdineko jendearen eskubide berdintasuna bermatzea, eta horrez gain, hitzarmena berritzeko erabakiarekin, Florida 28an kokatuta dagoen Kulturarteko Plaza Feminista eraikineko bi gela erabiltzeko proposamena jaso nahi izan zen, elkarteari bideratutako zuzeneko dirulaguntzaren kopurua egokituz: 72.000 euro urtean, lau epetan ordaintzeko: otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran.

Hitzarmenaren 17. klausulak dioenarekin bat, AMHER-SOS Arrazakeria elkarteak garaiz eta dagokion epean aurkeztu du 2023ko ekitaldiko dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa, 2025eko otsailaren 28 baino lehen, hain zuzen. Memoria, xehetasunez adieraziz urtean zehar egindako eta diruz lagundutako jarduerak; balantze ekonomikoa, eta bestelako ziurtagiriak.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko apirilaren 10ean aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Tokiko Gobernu batzarrak aho batez erabaki du :

1.- 2024ko justifikazio txostena eta dirulaguntza likidazioa onartzea.
30/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Udal dirulaguntza Araudiak xedatu moduan, dirulaguntza itzultzeko prozedura abiatzen da, eta behar ez bezala ordaindutako zenbatekoa (4.275,49E) itzul dezala.

2.- 2025eko dirulaguntza onartzea, 2022ko otsailaren 3an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean onartutako hitzarmenaren arabera. aurrekontuko partida honetatik 1 02.481.03.231.02 2025 (4568) DIRULAGUNTZA: AMHER.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria
Hernanin 2025eko apirilaren 30ean

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago: egiazkotasuna eta osotasuna

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKU9ed2b6d0-14dd-45e3-9481-966fb4a8cc64**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>